

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

2020ko ekitaldiko zergak eta tasak kobratzea

Luis Aldazabal Ruiz de Viñaspre, Eltziegoko Udaleko alkate lehendakariak.

Jakinarazten dut 2020ko azaroaren 11tik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, ordainarazpen hauen 2020ko ordainagiriak:

- Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Landa bideak mantentzeko tasa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko azaroaren 11tik 2021eko urtarrilaren 11ra.

B) Betearazte aldia: 2021eko urtarrilaren 12tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak:

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Eltziegoko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Eltziego, 2020ko urriaren 1a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE